

AURKEZTU
ZU **ERRENTA**
RE

AITO **R** PENA



Uharteko Udala
Ayuntamiento de Huarte

Uharteko udalak, herritar guztiok udalerrian eskaintzen diren jardue-
rez berdintasunean disfrutatzeko
asmoarekin, duela urte batzuk familia
unitatearen diru-sarreraren arabera diruz lagun-
dutako kuota sistema bat ezarri zuen.

Zuk eta zure familiak diruz lagundutako kuota
hauetaz baliatu nahi baduzue, udalaren erregis-
troan familia unitatearen errenta aitortpena
aurkeztu beharko duzu urtero.



Uharteko Udala
Ayuntamiento de Huarte

ZER ONURAK IZANEN DITUT ERRENTA AITORPENA AURKEZTEN BADUT?



Udal zerbitzuetara sarbidea izanen duzula zure diru-sarreraren arabera ordainduz, bai zuk nola zure familia unitateko kideek.

Denboraldi bakoitzean errenta aitorpena **BEHIN** besterik ez duzu aurkeztu behar.

Udalaren jarduera guztietarako (musika eskola, kulturako ikastaroak, ludoteka eta hiri kanpaldiak, kirol jarduerak) balioko du, bai eta udalaren kirol instalazioetarako.

SALBUESPENA haur eskoletan dago, Nafarroako Gobernuak ezarritako sistema propioa baitute.

NORTZUK AURKEZ DEZAKEGU ERRENTA AITORPENA?

Uhartzen erroldatutako pertsonak besterik ez, zuek baitzarete kuoten murrizpenaz etekin atera dezake-zuen bakarrak.

NOLA AURKEZTUKO DUT ERRENTA AITORPENA?

Horretarako espresuki eginiko inprimakia betez, non aurkeztu beharreko dokumentazioa agertzen den.

Inprimaki hau eskura izanen duzu udalaren erregistroe-tan edo jaitsi ahalko duzu www.huarte.es web orritik.

NON AURKEZTU BEHAR DUT ERRENTA AITORPENA?

Udalak erregistrorako dituen bi bulegoetako batean:

- Udaletxeko bulegoak, zabalik 8:30etik 14:00etara.
- Udalaren Kirol Zerbitzuan (Ugarrandiakirol instalazioak), zabalik 9:00etatik 21:00etara.

Edo egoitza elektronikoan, 'Errenta Aitorpenaren aurkezpena' izapidea erabiliz.

DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA



Informazioaren trataera zorrotz betetzen du datuen babeserako legeak dioena.

Prozedura administratiboak bermatuko du informazioa ahalik eta pertsona gutxien erabiltzea.

PERTSONA BAKAR BATEK baloratuko du deklarazioa eta kide bakoitzari ateratako tarteazarri. Udal jarduera batean izena ematerakoan, jarduera horren arduradun den zerbitzuak datu base batean zure familia unitateari egokitutako tarteak kontsultatuko du (aitorpeneko gainerako datuak ikusi gabe) eta dagokion kuota ezarriko du.

NOLA KALKULA DEZAKET ZEIN TARTEAN NAGO?



Familia unitatearen per capita errentaren arabera 7 tarte ezarrita daude:

- PCE < 5.000€
- PCE 5.000,01€ - 8.000€
- PCE 8.000,01€ - 10.000€
- PCE 10.000,01€ - 15.000€
- PCE 15.000,01€ - 20.000€
- PCE 20.000,01€ - 30.000€
- PCE > 30.000,01€

Tarte bakoitzari prezio bat dagokio, merkeena < 5.000€ PCE duena izanik eta progresiboki tartez tarte igo. PCE "Per capita errenta" = familia unitatearen diru-sarrerak (errenta aitorpeneko 507 + 8810 + 8808 - 708 laukitxoak) / familia unitatearen kideak.

Argibide + udalaren web orrian:

ERRENTA TARTEA NOLA KALKULATU ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZER EGIN DEZAKET ERRENTA AITORPENA AURKEZTEA EZ AHAZTEKO?



Udal jarduera batean apuntatzerakoan badago epe bat izena emateko eta beste bat errenta aitorpena aurkezteko. Epez kanpo aurkeztuz gero goiko tartea aplikatuko zaizu (garestiena).

Epe horien pasatzea saihesteko, errenta aitorpena **EGIN BEZAIN AZKAR** udalaren erregistroan aurkezte aholkatzen dizugu, hau da, urte bakoitzeko **maiatzean edo ekainean**.